



Araba Euskaraz-en aurkezpena, atzo, Gasteizen. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Bastida ikastolaren alde egingo dute 2025eko Araba Euskaraz

→ Ekainaren 15ean izango da hurrengo Araba Euskaraz besta, Gasteizko Olarizun.

→ 'Etengabe' leloa jarri diote Arabako ikastolen aldeko datorren urteko topaketari.

Irati Urdalleta Lete

Aurkeztu dute Araba Euskaraz, eta jakinarazi dituzte Arabako ikastolen aldeko jaiaren ildo nagusiak: 2025eko ekainaren 15ean egingo dute, eta bertan bilduko duten dirua Bastida ikastolari laguntzeko izango da; Arabako zortzi ikastolak elkarlanean arituko dira hura antolatzen. Leloa ere aukeratu dute: *Etengabe*. Azken aldieta bezala, datorren urtean ere Gasteizko Olarizun izango da jai.

Lelorearen nondik norakoez aritu ziren atzoko aurkezpenan. Badira 45 urte ikastola ireki zutela, eta orduetik *etengabe* aritu dira Bastidari «kalitateko hezkuntza» eskaintzen, euskaraz eta euskal

kulturaren ardaztuta. Gainera, diotenez, *etengabe* dihardute hezkuntzan eta pedagogian: «Ikastola ereduaren oinarrituta ari gara; pedagogia aurrerakoiak baliatzen ditugu; eta ikasleak erdigunean jarrita hezten ditugu, haiek baitira gure egitekoaren ardatza, gure iparra». Eta, nabarmendu zuten, *etengabe* jarduten dute hizkuntzaren eta kulturaren defentsan. Bastida ikastola bederatzik ikasleekin hasi bazen ere, 132 ditu egun; horietako batzuk Euskal Herriko kanpokoak dira.

Urte osorako egitaraua
Arabako ikastolen aldeko egun handia ekainaren 15a izango bada ere, urte osorako egitaraua atondu dute. Hil honetan bertan

izango da lehen ekitaldia: urriaren 18an aurkeztuko dute jai Bastidan. Abestiaren aurkezpena ere beste mugari bat izango da: aurreratu dute apirilaren emango dutela haren berri. Gainera, *Non eta Mugan* gazte topaketa egingo dute apirilaren 4an, Bastidan, eta, maiatzaren 17an, *Etengabe* jaialdia egingo dute herri berean. Egun nagusiko egitaraua oraindik ez dute argitu, baina eman dute zertzeladaren bat edo beste: «Aurreko urteotan bezala, haurrei eta familiei bideratutako jai eguna ari gara prestatzen, baina adin guztietarako askotariko kultur egitasmoak eskainiko ditugu. Jai parte-hartzailea izatea nahi dugu, eta euskararen erabilpena bultzatuko duena». ●

HITZ GUTXITAN

Feriatzaileek Baionako besten daten auzian aterabidea nahi lukete urriaren 19a aitzin

BAIONAKO BESTAK— Feriatzaileen mobilizazioaren ondoren Etxegarai Baionako auzapezak argiki erran zuen ez zuela besten egunen aldatzeko asmorik. Feriatzaileek aterabidea bilatu nahi lukete urriaren 19a gabe. Aviron errugbi taldea ariko den eguna da, eta feriatzaileek mobilizazioa iragarri dute horko.



Espainiako Kongresua, atzo. SERGIO PEREZ / EFE

AEAREN Legea onartu dute Espainiako Diputatuen Kongresuan

OSASUNA— Alboko esklerosi amiotrofikoa (AEA) dutenek aurre egin beharreko eronkei konponbidea emateko legea onartu zuen atzo Espainiako Kongresuak, eta aste batzuk barru eragina izango du Hego Euskal Herrian. Orduetik aurrera, AEA egoera aurreratuan dutenek bermatua izango dute 24 orduko zaintza.

DATUA

8.000

Eusko Jaurlaritzak plan bat onduko du 2027rako Ertzaintzak 8.000 agente izan ditzan. 7.412 ertzain daude gaur egun, eta datozen hiru urteetan 600 agente inguru batu beharko lirake adostutako kopurura heltzeko.

Lan eskaintza publikoko eredu berri bat proposatu die Osakidetzak sindikatuei

OSAKIDETZA— Lan eskaintza publikoko eredu berri baterako proposamena egin zuten atzo Osakidetzak sindikatuei, «plantilla egonkortzeko beharrei erantzuna emango dien eredu arinago bat». Horrez gain, betetzeko zailak diren lanpostuak osatzeko kontratazio programa bat ere aurkeztu zuen.

Eskelak

(0034) 943-30 40 30
eskelak@bidera.eus

Berria.eus/eskelak

BERRIALagunek eta BERRIALagun harpidedunek %25 merkeago izango dituzte eskelak



Elisa Balanzategi Arando

(Martxel Eguenen alarguna)

Galdakaon hil zan, 2024ko urriaren 10ean, 90 urte ebazala, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian Bego-

Bere alabak: Irma eta Irune; suinak: Jose Arriaga eta Txus Arrieta; ilobak: Elena, Danel, Andu, Lala; anai-arrebak, koinatu-koinatak, lobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otowitz bat eskatzen dizuete, eta arren etor zaitezela hiletera. GAUR egingo da, OSTIRALA, HILAK 11, arratsaldeko ZAZPIETAN, ELORRIOKO SORTZEZ GARBIAREN BASILIKAN, gorpua bertan dela. Aldez aurretik, mila esker.

Elorrio, 2024ko urriaren 11n.

OHARRA: hil bella Durangaldeko beltetokian dago (lurreta), gaur, ostirala, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.



Rosario Martinez de Osaba Sola

5. URTEURKENA

2019-10-11n joan zinen.

Maite zaitugu.

Beti edukiko zaitugu gure gogo-bihotzetan.

Egun handira arte, ama maitea.